

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

2020ko hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, ezaugarri berezienak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta zabor bilketaren gaineko tasa kobratzea

Honakoa jakinarazten dut: urriaren 15etik aurrera, eta azaroaren 30era arte, ondorengo ordainarazpenen 2020 urteari dagozkion ordainagiriak borondatezko epealdian kobratuko dira:

Hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Ezaugarri berezidun Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

Zabor bilketaren zerbitzuaren gaineko tasa.

1. Ordaintzeko epea:

Borondatezko epealdia: 2020ko urriaren 15etik azaroaren 30era.

Exekuzio-epea: 2020ko abenduaren 1etik aurrera, exekuzio-epea hasiko da, eta exekuzio-gainordainak sortuko dira, bai premiamendu murriztukoak bai premiamendu arruntekoak, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako epeetan.

2. Ordaintzeko lekua eta modua:

Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetan helbideratu dutenek ez dute inolako gestiorik egin beharrik izango, helbideratzearen kontua aldatu ez badute. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa banku bidez helbideratu gabe dutenek, borondatezko epean bakarrik ordaindu ahal izango dute, Kutxabank edo La Caixa entitateen bulegoetan.

3. Gomendioak:

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide-aldaketak ere, hurrengo jakinarazpenetarako, Arratzua-Ubarrundiako Udalarari bidali beharko zaizkio eta 2021eko ekitaldian aplikatuko dira.

Hala zabaltzen dut, jende guztiak horren berri izan dezan.

Duranean, 2020ko irailaren 23an

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE